

# JARRAIBIDE TEKNIKOA-01

## (JT-01): GERIATRIKOAK ETA BESTELAKO ZENTRO SOZIOŠANITARIOAK GARBITU ETA DESINFEKTATZEKO NEURRIAK

2020

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**OSASUN SAILA**  
Osasun Sailburuordetza  
*Osasun Publikoaren eta Adikzioaren*  
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE SALUD**  
Viceconsejería de Salud  
*Dirección de Salud Pública*  
y Adicciones

**Dokumentua:** JT-01: Geriatrikoak eta bestelako zentro soziosanitarioak garbitu eta desinfektatzeko neurriak

Jarraibide teknikoa, Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko agindua, SARS-CoV-2ak (COVID-19) eragindako pandemiaren ondorioz gainazalen garbiketa eta desinfekzioaren inguruko neurriak eta bestelako neurri higienikoak ezartzen dituen, garatzen duena.

**Argitaratze-data:** 2020ko apirilaren 1a. 0 bertsioa

**Jabea:** Eusko Jaurlaritzak. Osasun Saila.

## Edukia

|   |   |
|---|---|
| 1. JUSTIFIKAZIOA.....   | 1 |
| 2. XEDEA .....  | 1 |
| 3. GARBIKETA ETA DESINFEKZIO NEURRI OROKORRAK.....  | 1 |
| 4. DESINFEKTATZAILEAK .....   | 2 |
| 5. COVID-19AREN ERAMAILE DIREN EDO IZAN DAITEZKEEN EGOILIARREKIN KONTAKTUAN EGON DIREN GAINAZAL ETA LEKUEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA ..... | 4 |
| 6. COVID-19AREN ERAMAILE DIREN EDO IZAN DAITEZKEEN PERTSONEN HONDAKINEN KUDEAKETA .....   | 4 |
| 7. SANEAMENDUA ETA OHEKO ARROPA.....  | 5 |
| 8. ONTZITERIA.....  | 5 |
| 9. ERREFERENTZIAK .....   | 6 |

## 1. JUSTIFIKAZIOA

Zentro soziosanitarioetako (adinekoen egoitzak, desgaitasunen bat duten pertsonen egoitzak edo bestelako zentroak) egoiliarrek zaurgarritasun egoera handiagoan daude, COVID-19aren infekzioa dela-eta. Askotan oinarriko patologiak dituzten edo polimedikatuta dauden pertsonak direlako da hori, besteak beste. Gainera, oso harreman estua edukitzen dute beste egoiliarrekin eta euren zaintzaileekin, eta denbora luzea ematen dute eremu itxietan.

Zentro soziosanitarioek kontingentzia-planak eduki behar dituzte, Osasun Ministerioaren *Adinekoen egoitzetan eta gizarte zerbitzuak ematen dituzten bestelako egoitzetan COVID-19ari aurre egiteko prebentzio eta kontrolerako gidako* zuzentzauei jarraituz. ([https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Residencias\\_y centros sociosanitarios COVID-19.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Residencias_y centros sociosanitarios COVID-19.pdf))

SARS-CoV-2 birusaren infekzioa 5 mikratik gorako arnas-tanten bitartez eta infektatutako pertsonen sekrezioekin harreman zuzena edukita transmititzen da batez ere, pertsona batetik bestera, baina ez dirudi metro batetik edo bi metrotik gorako distantzietan gertatzen denik. Eskuetan edo bestelako objektu edo gainazaletan egon daitekeen material kontaminatuaren bitartez ere eman daiteke kontaktua. Beraz, oso garrantzitsua da higie eta garbiketa neurriak zorrotz betetzea.

Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko aginduak, SARS-CoV-2ak (COVID-19) eragindako pandemiaren ondorioz gainazalen garbiketa eta desinfekzioaren inguruko neurriak eta bestelako neurri higienikoak ezartzen dituenak, garbiketaren eta desinfekzioaren inguruan aintzat eduki beharreko alderdi orokorrak xedatzen ditu, eta garbiketa eta desinfekzioa jarraibide tekniko bidez egingo direla horren aplikazio-eremuan zehaztutako atal desberdinetan; hala, eguneratu eta beharretara zein ezagutza tekniko eta zientifikoaren aurrerapenetara egokitu beharko dira.

## 2. XEDEA

Egoitza izaera duten zentro soziosanitarioetan (adinekoen zentroak eta bestelako zentro soziosanitarioak) aintzat eduki beharreko garbiketa eta desinfekzio neurriak ezartzea.

## 3. GARBIKETA ETA DESINFEKZIO NEURRI OROKORRAK

Garbiketa-planak funtsezko hiru alderdi eduki behar ditu kontuan: aireztatzea, garbiketa eta desinfektatzea.

**Aireztatzea** garrantzitsua da, barruko airearen kalitate ona mantentzeko.

**Garbiketa** gainazaletako zikinkeria kentzean datza, germenak barne. Horretarako, bitarteko mekaniko eta kimikoak (detergenteak) erabiltzen dira. Garbiketak bakarrik ez ditu germenak hiltzen edo desaktibatzen, baina txikitu egiten du horien kopurua; beraz, infekzioa transmititzeko arriskua ere txikitu egiten du.

**Desinfektatzeko**, produktu kimikoak erabiltzen dira, baimendutako produktu biruzidak, besteak beste, gainazaletako germenak hiltzeko/desaktibatzen. Prozedura horrek ez du zikinkeria kentzen nahitaez, baina gainazaletako germenak hiltzen ditu. Garbiketaren ondoren, desinfekzioak are gehiago txikitzen du infekzioa transmititzeko arriskua.

Garbiketa eta desinfekzio produktuen **etiketek** horiek segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak dituzte, hartu beharreko neurriei buruzko informazioa barne.

Jarraian, hainbat jarraibide orokor ageri dira:

- Instalazioen aireztatzea, egunean behin, gutxienez, zentroko barruko airea berritzea ziurtatuta. Aireztatzea bitarteko mekanikoen bidez egiten bada, mantentze-egoera onean egon behar dute horiek.
- Garbiketa-programa sendoagoak ezarriko dira zentroan, eta arreta berezia jarriko da pertsona gehien ibiltzen diren lekuetan eta maiz ukitzen diren gainazaletan, baranda eta eskudeletan, botoietan, ateetako heldulekuetan, interruptoreetan, mahaletan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatueta, telefonoetan, tabletetan, gurgil-aulkietan eta makuluetan, eta abarretan.
- Zentroetako sarrera, pasillo eta gune komunetan eskuen higieneari eta arnas-higieneari buruzko informazio-kartelak jarriko dira. Alde horretatik, egoiliar eta langileen osasun hezkuntzarako prestakuntza-jarduerak egin behar dira.
- Zentroetako komun guztietan eskuak garbitzeko xaboi eta paperezko-eskuoihal nahikoa egotea bermatuko da.
- Eskuak garbitzeko soluzio hidroalkoholikoa duten banagailuak (gela barruan zein kanpoan, ahal bada), arnas-higienarako erabili eta botatzeko musuzapiak eta pedalarrekin irekitzen den tapa duten hondakin-edukiontzia egongo dira. Langileek eskuak garbitzeko gailuak edukiko dituzte arreta guneetan eta norbera babesteko ekipamenduak (NBE) jantzeko eta erantzeko lekuetan.
- Eskuak oso zikin ez badaude, 20-30 segundoan erabil daiteke soluzio hidroalkoholikoa, teknika egokiari jarraituz. Eskuak oso zikin badaude, xaboi-urarekin garbitu, 40-60 segundoan, teknika egokiari jarraituz.

## 4. DESINFEKTATZAILEAK

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, koronabirusak modu eraginkorrean inaktibatzen dira minutu batean etanolarekin (%70), hidrogeno peroxidoarekin (%0,5) edo sodio hipoklorito soluzio batekin (%0,1) (1000 ppm).

Ingurumenean erabiltzeko diren desinfektatzaileak biozidak dira, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 22ko 528/2012 (EB) Erregelamenduak, Biozidak merkaturatzeari eta erabiltzeari buruzkoak, arautzen ditu.

**Lixibaren erabilera (hipoklorito sodikoa)**

Lixiba da SARS-CoV-2 koronabirusa inaktibatzen eraginkorra den desinfektatzaileetako bat, eta hainbat erakundek gomendatu dute. Lixibek, komertzializatzeko beharrezkoak diren gehigarriak eduki edo ez, 35-100 gramo kloro aktibo eduki behar dute litroko, lixibatzen jotzeko.

Jarraibide praktikoak:

Lixibak 50 gramo kloro aktibo edo gehiago baditu litroko, erabili 20 mililitro lixiba (bi koilarakada handi, gutxi gorabehera) eta ura erantsi, litroa osatu arte. Horrela, %0,1eko edo goragoko hipoklorito kontzentrazioa duen disoluzioa lortuko duzu.

Erabilitako lixibak 50 g/l-tik beherako kloro aktibo kontzentrazioa badu, erabili 30 ml lixiba (hiru koilarakada) eta erantsi ura, litroa osatu arte.

Berriki prestatutako disoluzioak erabiltzea gomendatzen da.

Desinfektatzeak egiteko, kubo bikoitzaren teknikari jarraitzea gomendatzen da: bi kubo erabili behar dira; kubo batean soluzio desinfektatzailea edukiko dugu, eta, bestean, ur garbia. Zapia edo lanbasa desinfektatzailea duen kuboan sartuko dugu. Gainazala garbitu ondoren, zapia edo lanbasa ur garbia duen kuboan garbituko dugu, berriz ere soluzio desinfektatzailean sartu aurretik.

Era berean, garrantzitsua da, halaber, sigi-sagaren teknikari jarraitzea, hau da, mugimenduak sigi-sagan edo goitik behera egitea, eremu garbitik eremu zikinera pasatuz aurrera eginez eta zapia edo lanbasa leku berean bi aldiz pasatzea saihestuz, eremu garbia berriz ez kontaminatzeko.

**Eragin biruzida duten beste produktu batzuk**

Sodio hipokloritoak kaltetu ditzakeen gainazalean, etanola (%70) erabil daiteke, detergente batekin garbitu ondoren desinfektatzeko. Botikinetan ohikoa den alkohola (%96) edukiz gero, %70era moteldu behar da, honela: ontzi batean 73 mililitro alkohol jarri eta ura erantsi, 100 mililitro osatu arte. Ontzia hainbat aldiz irauli, diluzioa ongi nahasteko, eta erabiltzeko prest egongo da.

Hemen aurki daiteke Espainian baimendutako biruziden zerrenda:

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado\\_virucidas\\_PT2\\_ambiental.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas_PT2_ambiental.pdf)

Osasun Ministerioan erabilera pertsonal espezializaturako erregistratutako desinfektatzaileak erabili behar badira, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean (EZBEO) inskribatutako enpresetako teknikari kualifikatuek aplikatuko dituzte.

[\(https://www.euskadi.eus/informacion/productos-quimicos-salud-ambiental/web01-a2ingsan/es/\)](https://www.euskadi.eus/informacion/productos-quimicos-salud-ambiental/web01-a2ingsan/es/)

## **5. COVID-19AREN ERAMAILE DIREN EDO IZAN DAITEZKEEN EGOILIARREKIN KONTAKTUAN EGON DIREN GAINAZAL ETA LEKUEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA**

Garrantzitsua da gainazalen eta lekuen garbiketa egokia ziurtatzea. Garbiketa-programa sendotuek arreta berezi jarriko dute ondorengo leku hauetan:

- Isolamendu sektoreen sarreran/irteeran, alegia, ate, eskailera eta igogailuetan, besteak beste, COVID-19a transmititzeko arriskua txikitzeko.
- Ibilian dabiltzan pertsonak sar daitezkeen lekuak.

SARS-CoV-2a eduki dezaketen edo duten egoiliarrekin kontaktuan egon diren gainazalak eta lekuak garbitu eta desinfektatzeko prozedura zentroko ohiko garbiketa eta desinfekzio politikaren arabera egingo da, egunean behin, gutxienez. Maiz ukitzen diren gainazalen (gaurmahaiak, somierrak, logelako altzariak, ateetako heldulekuak, interruptoreak, komuneko gainazalak, iturriak, telefonoak, urrutiko kontrolak, gurpil-aulkiak, makuluak, pixontziak, erretiluak...) garbiketa eta desinfekzioa areagotu egingo da, eta egunean behin egingo da, gutxienez. Ez dira ahaztu behar kontaminatu egin daitezkeen parametro bertikal eta horizontalak.

Horretarako baimendutako ohiko detergente eta desinfektatzaileak (biruzidak) erabiliko dira, eta gainazaletarako papera edo erabili eta botatzeko ehunak erabiliko dira.

Garbitzaileek eremu horiek garbitzeko informazio egokia jasoko dute, eta norbera babesteko ekipamendua erabiliko dute leku horietan sartzeko, prebentzio zerbitzuaren jarraibideak beteta.

Erabili eta botatzeko den materiala tapa eta dagozkion neurrien etiketa dituen hondakin-educiontzian sartuko da erabili ondoren.

Gaixorik dagoen pertsonaren gela ongi aireztatzea ziurtatuko da, atea itxita betiere. Gaixoa beste leku batera eramaten badute edo pertsona horrek gela uzten badu, atea itxita aireztatuko da gela, eta garbiketa eta desinfekzioa egin arte ez da utziko beste inor gela horretan sar dadin.

## **6. COVID-19AREN ERAMAILE DIREN EDO IZAN DAITEZKEEN PERTSONEN HONDAKINEN KUDEAKETA**

Gaixoaren hondakinak, gaixoaren erabili eta botatzeko materiala barne (eskularruak, musuzapiak, maskarak) plastikozko poltsa (1 POLTSA) batean sartu behar dira logelako zakarrontzian; ahal izanez gero, tapa eta pedala edukiko ditu, irekitzeko, eta ez da gaikako bereizketarik egingo, birziklatzeko.

Plastikozko poltsa (1 POLTSA) behar bezala itxi eta bigarren zabor-poltsa batean (2 POLTSA) sartu behar da, gelako irteeraren ondoan; bertan sartuko dira, halaber, zaintzaileak erabilitako eskularruak eta maskara, eta

ongi itxiko da gelatik irten aurretik.

2 POLTSA, aurreko hondakinak dituen, etxeko gainerako hondakinekin batera sartuko da zabor-poltsan (3 POLTSA). 3 POLTSA ere behar bezala itxiko da.

Jarraian, ongi garbituko dira eskuak, xaboi-urarekin, 40-60 segundoan gutxienez.

3 POLTSA errefusaren edukiontzian utziko da (edo tokiko erakundearen errefusa jasotzeko ezarritako beste edozein sistematan); erabat debekatuta egongo da gaikako edukiontzietan uztea, gaikako edozein edukiontzitan (organikoa, ontziak, papera, beira edo ehunak), edo inguruan lagatzea.

COVID-19ak kaltetutako pertsonen kopuru handia dagoen zentroetako/lekuetako (egoitzak, ospitale bihurtutako hotelak eta abar) poltsen bilketa berezitua ezarri ahal da osasun krisiak iraun bitartean, horrekin lotutako hondakin asko sortzen baitira. Poltsa horiek identifikatuta egongo dira kanpoaldetik (zinta isolatzailearekin edo antzekoren batekin, adibidez), eta hondakinak biltzeaz arduratzen diren agintariek ezarritakoaren arabera botako dira.

## 7. SANEAMENDUA ETA OHEKO ARROPA

Erabiltzailearen arropa eta gelako arropa gomendioaren arabera kenduko dira; gela barruan sartuko da poltsetan, eta bertan itxiko dira poltsak. Arropa ez da astindu behar, eta ziklo oso batekin garbitzea gomendatzen da, 60 eta 90 gradu arteko tenperaturan.

COVID-19 duten gaixoen oheko arropa zikina, eskuoihalak eta arropa maniatzen dituzten langileek norbera babesteko ekipamendu egokia erabiliko dute, prebentzio-zerbitzuaren argibideei jarraituz.

COVID-19a egiaztatuta duten edo eduki dezaketen pertsonen banako bainua izango dute. Ezin bada, gutxienez egunean bitan garbitu eta desinfektatuko dituzte bainugelak norbera babesteko ekipamendu egokiak dituzten langileek, eta, ahal dela, erabilera bakoitzaren ondoren. Komun-ontzia itxita dagoela botako da bainugelako katea.

Gainazal edo arropetan gorozkirik egonez gero, komunetik behera botako dira berehala. Eremua garbitu eta desinfektatu egin beharko da, eta arroparekin ere halaxe egingo da.

## 8. ONTZITERIA

Ez da beharrezkoa erabili eta botatzeko sukaldeko ontziteria edo tresneria erabiltzea. Egoiliarak erabiltzen dituen ontzi eta mahai-tresna guztiak ontzi-garbigailuan garbituko dira, 50-60 gradutik gorako tenperaturan.

Janaria emateko erabili ohi diren erretiluak pazientearekin kontaktuan egongo diren gainazalak dira, eta desinfektatu egin behar dira.

## 9. ERREFERENTZIAK

COVID-19ari buruzko informazioa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarena.

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>

COVID-19ari buruzko informazioa, Osasun Ministerioarena.

<https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/home.htm>

Dokumentu teknikoak: “Medidas higiénicas para la prevención de contagios del COVID-19” (COVID-19aren kutsatzeak prebenitzeko neurri higienikoak)

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Medidas\\_higienicas\\_COVID-19.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Medidas_higienicas_COVID-19.pdf)

*Guía de prevención y control frente al COVID-19 en residencias de mayores y otros centros de servicios sociales de carácter residencial (Adinekoen egoitzetan eta gizarte zerbitzuak ematen dituzten bestelako egoitzetan COVID-19ari aurre egiteko prebentzio eta kontrolerako gida)*

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Residencias\\_y centros\\_sociosanitarios\\_COVID-19.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Residencias_y centros_sociosanitarios_COVID-19.pdf)

WHO. *Water, sanitation, hygiene, and waste management of the COVID-19 virus. Interim guidance. 19 march 2020*

[https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/331499/WHO-2019-nCoV-IPC\\_WASH-2020.2-eng.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/331499/WHO-2019-nCoV-IPC_WASH-2020.2-eng.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Produktu kimikoei buruzko informazioa. Euskadiko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala

<https://www.euskadi.eus/informacion/productos-quimicos-salud-ambiental/web01-a2ingsan/es/#722>

Bioziden Erregistro Ofiziala

<https://www.mscbs.gob.es/ciudadanos/productos.do?tipo=biocidas>

Espanian ingurumenean (PT2), elikadura industrian (PT4) eta giza higiean (PT1) erabiltzeko baimendutako biruziden zerrenda (2020.03.26)

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado\\_virucidas.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf)